

KANAL

Gure negozioian salmenta kanala zuzena da. Negozio-ideiaren asmoa Interneten eta denda fisiko batean saltzea da. Interneten on line web baten bidez hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, esan bezala online denda batez gain, fisikoki denda bat ere izango dugu bezeroek armairu motak hobeto ikusteko aukera eskainiz.

Denda fisiko eta online bat jartzea aukeratu dugu hurrengo arrazoiengatik.

Denda fisikoa:

- Gure bezeroak produktua fisikoki ikusi nahi badute, denda fisikora joateko aukera izatea. Horrela armairua erostean seguruago egongo dira, produktua zuzenean ikusi dutelako tamaina errealarekin.
- Horrez gain, gure produktua pertsonaliza daiteke eta horri buruz hitz egiteko, diseinua, tamaina etab erabakitzeko bitartekaririk gabe egiteko aukera dago horrela harreman zuzena daukagu bezeroarekin eta horrekin batera ere bezeroak dituen eskakizun, zalantzei... buruz gomenda geniezaioke.

Denda online:

- Denda fisikora joateko aukerarik ez baduzu, online bidez erosteko aukera izatea ondo egongo litzatekeela uzte dugu.

Hau guztia kontuan hartuta gure banaketa kanala laburra da, guk bezeroarekin komunikazio zuzena izango dugulako eta ez ditugulako bitartekaririk izango.

Gure komunikazio kanala web orriaren bitartez izango da. Atal hori, bezeroarekiko arreta izango du izena eta goiko atalean argi eta garbi agertuko da. Honetan, bezeroak galderak edo gomendioak egin ahalko ditu. Armairuaren web orrian bezala, aplikazioan, hau da, Bonnted-en atal berdina egongo da, inolako arazoak izatekotan gurekin kontaktuan jarri ahal izateko.